BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

5306

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 21ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, 2012ko ekitaldiari dagokionez, «Gaitek Programa» delakoaren barruan produktu berriak garatzeko proiektuak burutzeko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak ematera bideratutako baliabideak gehitu direla argitara emateko dena.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2008ko azaroaren 27ko Aginduaren –Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko abenduaren 23ko Aginduaz aldatutakoaren– bitartez, produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa «Gaitek Programa» arautzen da.

Agindu horretako 13. artikulua betez, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak 2011ko azaroaren 30eko Ebazpena eman zuen (deialdia 2011ko abenduaren 30eko EHAAn argitaratua, 247. zenbakian), zeinen helburua hauxe baita: 2012ko ekitaldiari dagokionez, «Gaitek Programa» delakoaren barruan produktu berriak garatzeko proiektuak burutzeko Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzak ematea.

Kontuan hartuta Gaitek programaren barruan aurkeztu diren laguntza-eskabideak eta, Industria, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak aurrekontuetan erabilgarri dituen baliabideak, egoki iritzi zaio 2012ko ekitaldirako programan ezarritako funtsak gehitzeari.

Horregatik, deialdia egin zuen ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuta, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2011ko azaroaren 30eko Gaitek Programaren barruan (2011ko azaroaren 30eko EHAAn argitaratua, 247. zenbakian) beste produktu batzuk garatzeko proiektuak egin daitezen, 2012ko deialdirako aurreikusitako diru-bideak 41.900.000 eurora arte gehitzea, 2012ko ekitaldirako, xahutu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 21a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.